



Arartekoaren 2016S-1235-16 Ebazpena, 2016ko azaroaren 2koa. Horren bidez, iradokitzen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari neurri egokiak susta ditzala seme-alabak beren kargura dituzten familiei zerga-onurak aitortzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez.

Aurrekariak

1. Euskadiko Kide Ugariako Familien Elkarten Federazioak (Hirukidek) jakinarazi zion erakunde honi ez zegoela ados, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua indarrean jartzearen ondorioz, 2017ko urtarrilaren 1etik, udalek ezartzen duten hobaria familia ugarietako kideei kentzeko asmoarekin.

Azaldu zutenenez, 13 urtez indarrean egon ondoren, toki-erakundeek sortzen zuten hobaria kendu egin zen. Azpimarratzen zuten 2016ko ekitaldira arte Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek bidezkoztat jotzen bazuten, aukera izaten zuten zerga arautzeko ordenantzak erabiliz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zenbateko osoaren % 90era arteko hobaria ezartzeko, familia ugarietako kideen kasuan.

Agerian jarri zutenenez, Foru Arauaren Proiektuak –Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko martxoaren 8ko bileran onartu eta Batzar Nagusietan eztabaidarako aurkeztutakoak– ez zuen jasotzen toki-erakundeek zerga-onura hori aplikatzea erabakitzeke aukerarik, proiektuko Zioen Azalpenak aurreko araudiaren jarraipena izateko asmoa adierazi zuen arren.

Kexa jarri duen elkarteak uste du zerga-onura hori kentzeak kontrastea egiten duela, gutxienik ere, EKren 39.1 artikulua aginte-publikoei eskatu dien familiak babesteko neurriekin: "Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatzen dute" eta gure leislazioak euskal herri-administrazioei inposatzen die familiei sostengua eman behar zaiela. Hala, Familien Babesaren inguruko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 24. artikuluan, lurralde historikoetan familien alde hartutako zerga-neurriak homogeneizatu behar direla adierazten zaie. Halaber, azpimarratzen zuten erabakia ez zettorrela bat Euskal Autonomia Erkidegoko familiei laguntzeko Erakundearen arteko III. planak zehaztu dituen ildo estrategikoekin.

Kexa izapidetzeko prozeduran aurrera egin ahal izateko, erakunde honek laguntza eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari, familia ugarietako kideei ematen zitzaien zerga-onura kentzeko arrazoiak ezagutze aldera. Era berean, jakin nahi genuen zer-nolako tresnak ezarri ziren zerga konpentsatzeko neurri gisa, beren kargura seme-alabak dituzten familiei laguntzeko.





2. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak luze eta zabal erantzun digu, eta ondorio gisa, lau kontu azpimarratu ditu:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren izaera, benetakoa eta objektiboa.
- Eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari berariaz ematea, zergei buruzko foru arauen proiektuak onar ditzan.
- Izapidearen azterketa eta foru arauaren proiekturako Batzar Nagusietan proposatu diren zuzenketei buruzko eztabaida.
- Bizkaiko Batzar Nagusien eskumena, foru arauen proiektuak behin betiko onartzeko, beren ustez gehien egokitzen zaizkion zerga-politikako gogoetak kontuan hartuta, igorritako proiektuaren testuan azken aldaketak sartzeko eskubidearekin.

Izan ere, bidalitako txostena oso xehatua da, horregatik, bere edukia osorik jaso dugu ebazpen honetan:

“HIRUKIDEK ARARTEKOAREN AURREAN SUSTATUTAKO KEXA-IDAIZKIARI BURUZKO TXOSTENA (Esp. zk.: 1235/2016/QC)

2016ko uztailaren 11n, HIRUKIDEK (Euskadiko Kide Ugariako Familien Elkartearen Federazioa) sustatutako kexa-idazki baten berri eman zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari, zeinean federazioak ARARTEKOARI azaltzen dion ez dagoela ados Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauan aurreko arauan familia ugarietako kideentzat aurreikusten ziren zenbait onura fiskal kendu izanarekin; izan ere, arau berrian Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek ez dute izango aurretik zeukaten gaikuntza bat, zeinaren bidez OHZren kuota osoaren % 90aren arteko hobaria (eta onura fiskala, beraz) ezar zezaketen familia ugarietako kideen alde, udaletako ordenantza fiskalak erabiliz.

Horri dagokionez, esan behar da Arartekoaren erakundea kexa-espeditante hori izapidetzen ari dela, 1235/2016/QC zenbakiarekin, eta, haren baitan, sail honi helarazi dio espeditantea, sailak txosten bat egin den azalduz, batetik, zer arrazoi egon diren anura fiskal hori kentzeko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauan eta argitzeko, bestetik, zerga horretan zer konpentsazio-neurri jaso diren seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko.

Arartekoaren eskaerari erantzuteko, baina, aurretik zenbait ohar egin behar dugu azaltzeko zer eskumen-esparru duten Bizkaiko Lurralde Historiko honetako erakundeek eta argitzeko, halaber, zer prozedura jarraitu den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua onartu arte.



Hala, 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenak, honako hau ezartzen du 41.2.a) artikuluan:

«a) Lurralde historikoetako erakunde eskumendunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuko zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-armonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso ditzan araei eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horiexetarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzanei loturik.(...)»

Era berean, 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia-Eikarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoak, honako hau ezartzen du 7. artikuluan:

«(a) Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek, bakoitzaren berarizko lege-jaurpideen arauera erabiliko duten bakarreango agintepidea izango dute honako gai hauetan:

(...)

6.Autonomia-Estatutoaren 41garren Atalak esaten dituenak eta, orohar, Ekonomia-Itunearen Legeak edo zergalaritza-alorreko beste arau edo manuren batzuk emanda izan ditzaten guztiak.»

Lege-aurreikuspen hori betez, Ekonomia Itunak beren lurraldean zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena aitortzen die lurralde historikoetako erakunde eskudunei, eta, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez, honako hau zehazten du: «lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da. Zerga horrek kasuan kasuko lurralde historikoan dauden landa-ondasun eta hiri-ondasunak zergapetuko ditu». (Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onartzen duen 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 1.1 eta 39. artikulua.)

Batzar Nagusien eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen-esparrua hala definitu ondoren, 1987ko otsailaren 3ko 3/1987 Foru Arauak (Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa) berariaz esleitzen dio Bizkaiko Foru Aldundiari eta, zehatzago, Gobernu Kontseiluari, kide anitzeko organoa denez gero, eta bakoitzari beren eskumenen esparruan, ekimen arauemai/lea eta, ondorioz, baita foru-arauen proiektuak onesteko eskumena ere, gero, Batzar Nagusiei bidali eta haiek onetsi ditzaten, herri-ordezkaritzaren eta -partaidetzaren Lurralde Historikoko organo gorena dira eta.

Bizkaiko Foru Aldundiari esleitutako eskumenak direla-eta 3/1987 Foru Arauan hau ezartzen da berariaz:



8 artikulua

« 1. Batzar Nagusien aurrean arauemate-ekimena hurrengooi dagokie:

a) Batzar Nagusietako kideei eta Batzarkideen Taldeei, Batzar Nagusien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

b) Foru Aldundiari.

c) Hiritarrei, herri arauemate-ekimena erabiliz.»

17. artikulua.-

«1g.) Foru Aldundiari honakook dagozkio:

1.- Foru Arau-egitamuak onestea. Batzar Nagusiei bidaltzeko edo aipatutako Batzarren Erregelamenduak ezar ditzan baldintzetan, haiek atera daitezen mugarrizko. Dena dela, Foru Organoen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko Foru Arauaren 7.1.a) eta 11.1. artikuluek aipatuak dituzten arloak Foru Arau bitartez erregulatu beharko dira (...)

7.- Toki Korporazioen berekizko Tributuak erregulatzen dituzten Egitamuak prestatu, haien erizpena egin eta Batzar Nagusien behin betiko onespeneraren jartzea, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoaren Kontzertu Ekonomikoa onetsi zuen Maiatzaren 13ko 82/12. Legearen 45.1 artikulua arabera.»

Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusiei esleitutako eskumenak direla-eta honako hau ezartzen du 3/1987 Foru Arauak:

4. artikulua.-

«1. Batzar Nagusiak Kondaira Lurraldeko herri ordezkari eta partaidetzako Organo goren dira.

2. Batzar Nagusiek honako Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera arauemate-ahalgoa burutu, Diputatu Nagusia hautatu, Foru Aldundiak proposatuz gero aurrekontuak onetsi eta haren ekintzapidea kontrolatzen dute.

7. artikulua.-

« 1. Batzar Nagusiei hauexek dagozkíe:



a) Autonomi Estatutuaren eta Autonomi Erkidegoko Erakunde Komunen eta Kondaira Lurraldeen arteko Harremanak erregulatzen dituen Legearen arabera, Kondaira Lurraldeen eskumeneko izan daitezen arloei buruzko izaerea orokorreko Foru Arauak epaiztea.

2. Dena den, Batzar Nagusiei, gainera, hurrengo arlook dagozkie:

a) Hurrengo gaiok onestea:

(...) 2.- Kontzertu Ekonomikoaren Legearen 45. artikuluko 1. atalak aipatzen dituen Toki Korporazioen berekizko tributuen erregulazioa, hala nola, kasua balitz, Kondaira Lurraldeko Udalerrien Finantzaketarako Erregimen Orokorra finkatzea. »

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren proiektua 2016ko martxoaren 8ko bileran onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak (gai-zerrendako 15. gaia), eta Batzar Nagusiei helarazi zien, bertan eztabaidatu eta behin betiko onesteko. Proiektuarekin batera legezketasun txostena, aurrekontu eraginari buruzko txostena eta genero-eraginari buruzko txostena bidali zitzaizkion, Bizkaiko Batzar Nagusietako Araudian ezarritakoa betez.

Foru-arauaren proiektua izapidetzeko onartu ondoren eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Araudiaren 115. artikulua betez, Batzar Nagusien Mahaiak agindu zuen proiektua argitaratzea eta irizpena eman behar duen batzordeari bidaltzea, eta erabaki zuen iragarki bat jartzeko Batzar Nagusien webean, aipatutako proiektua herritarren eskura jartzeko. Gainera, 10 eguneko epea ireki zuen alegazioak aurkezteko, Idazkaritza Nagusian, hala banaka nola elkarte zein erakunde bidez.

Bada, dagokion eskubidea erabiliz eta horretarako legez ezarritako epearen barruan, HIRUKIDE elkarteak alegazioak aurkeztu zizkion OHZri buruzko Foru Arauaren proiektuari, 2016ko apirilaren 11n, eta haietan hau adierazi zuen:

«1.- (...) En el Proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de 8 de marzo de 2016 se ha optado, sin embargo, por descartar la bonificación que se otorga a las familias numerosas, entendiéndola ésta como una bonificación de carácter subjetiva, y por el contrario, introduciendo como novedades la incorporación de una nueva bonificación de hasta el 95% para la titularidad temporal sobre las parcelas de los aparcamientos municipales para residentes o el aumento del porcentaje de bonificación (de hasta el 100%) de la cuota del impuesto en el supuesto de bienes inmuebles situados en zonas afectadas por catástrofes naturales.

Se apunta que se mantienen además, como bonificaciones subjetivas, por un lado la bonificación de hasta un 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles en los que se hayan instalado sistemas homologados

para el aprovechamiento término eléctrico de la energía proveniente de/sol, y, por otro, la bonificación de hasta el 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles que sean objeto del cesión en programas del Gobierno Vasco en el marco del programa de Vivienda Vacía o de otros programas forales o municipales, e incluso añadiendo o de intermediación en el mercado de Alquiler de Vivienda libre y entendiendo también los planes y programas de vivienda en el ámbito autonómico.

2.- Por atribución de la Ley, los Ayuntamientos pueden incorporar según su criterio y de forma facultativa las bonificaciones potestativas a sus ordenanzas pues los criterios de gestión y regulación de esta bonificación se determinan en la ordenanza fiscal. (..)

3.- Actualmente existen en Bizkaia un total de 10.840 familias que tienen la condición de familia numerosa y que se pueden ver afectadas como consecuencia del no mantenimiento de la bonificación que en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles se recoge en la todavía legislación vigente(...)».

Eta hau eskatzen zuten:

«Se tengan en consideración tales alegaciones para su modificación y posterior aprobación por las Juntas Generales de Bizkaia.»

Bizkaiko Batzar Nagusietako Araudiaren 116. artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzar Nagusien Mahaiak 15 eguneko epea ireki zuen foru-arauaren proiektuari zuzenketak aurkezteko.

Foru-arauaren proiektuko artikuluen inguruko zuzenketak aurkezterakoan, batzarkide-taldeetako batzuek -Alderdi Popularrak, Podemos Bizkaiak eta EH BILDUK azpimarratu egin zuten Hirukide elkartearen kexaren sorburu den gaia.

Hala, Bizkaiko Talde Popularrak 9. artikuluari 5. zenbaki bat eranstea proposatu zuen (zk.: 1196), honela idatzita:

9. artikulua. Nahitaezko hobariak.

«5.- Ordenantza fiskaletan zerga-kuota osoaren % 90era arteko hobaria ezarri ahal izango da familia ugariaren izaera duten subjektu pasiboentzat. Ordenantzan zehaztu behar da zer motatakoak diren eta zer ezaugarri dituzten hobariak eragindako ondasun higiezinak; halaber zehaztu behar dira hobariaren urteko zenbatekoa eta gainerako alderdiak, funtsezkoak zein formazkoak, bai eta hobari horren eta beste onura fiskal batzuen arteko bateragarritasunerako baldintzak ere.»

Bestalde, Podemos Bizkaia batzarkide-taldeak 10. artikuluari 8. zenbaki bat eranstea proposatu zuen (zk.: 1213), honela idatzita:

«10. artikulua. Hautazko hobariak.

8) Ordenantza fiskalek zergaren kuota osoaren % 100era arteko hobaria ezarri ahal izango dute familia ugariaren izaera duten subjektu pasiboentzat, baina soilik ohiko bizilekua den etxebizitzarako. Hobaria zehaztuko da, hain zuzen, familia ugariaren kategoriaren arabera eta ohiko etxebizitzaren katastro-balioaren arabera, baina azken balio hori ezin da 250.000 euro baino handiagoa izan.»

Azkenik, EH Bildu batzarkide-taldeak 10. artikuluari 8. zenbaki bat eranstea proposatu zuen (zk.: 1198), honela idatzita:

10. artikulua. Hautazko hobariak.

«8.- Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren % 99ra arteko hobaria ezarri ahal izango dute, modu progresiboan, bizikidetza-unitateko kide kopuruaren eta subjektu pasiboaren errenta mailaren arabera.»

Aurkeztutako zuzenketa guztiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiek erabakitzen dute ea zuzenketa batek aurrera egin behar duen, eta, kasu honetan, zuzenketa guztiak atzera bota ziren.

Hori dela eta, Foru Araua behin betiko onesteko organo eskudunak, Hirukide elkarteak adierazitako onura fiskala OHZri buruzko Foru Arauaren proiektuan jasotzeko aukera aztertu eta eztabaidatu ondoren, erabaki zuen aukera hori bidezkotzat ez jotzea (onura fiskala hau litzateke, hain zuzen: gaikuntza ematea Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeei OHZ arautzeko ordenantza fiskalen bidez zergaren kuota osoaren % 90era arteko hobaria ezarri ahal dezaten familia ugarietako kideen alde).

Arartekoaren txosten-eskaeraren xede den neurriaren edukiari dagokionez, kontuan hartu behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ondasunen gaineko zuzeneko tributu bat da, izaera errealekoa eta objektiboa, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritako landa- eta hiri-ondasun higiezinaren balioa kargatzen duena, eta zerga hori udalen baliabide-sistemaren barruan sartuko da, udalek aukera izan dezaten, ikuspegi materialetik, beren finantza-autonomiaren eta -nahikotasunaren printzipioak gauzatzeko.

OHZren arautegi erregulatzailerik ezartzen duen gutxieneko eta ordezkoko karga-tasa askoz txikiagoa da aurreko araudian jasotzen zena baino, katastro-balioen gorakada konpentsatzearen; gehieneko tasa bat ere ezarriko da. Beraz, horrekin guztiarekin, udalek (berak baitira zergaren organo titularrak eta kudeatzaileak) udal baliabideak kudeatu ahal izateko behar dituzten tresna guztiak izango dituzte.

Horrenbestez, eta zerga honen izaera zuzeneko, erreal eta objektiboarekin bat, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aurreproiektuan aukera ematen zen udalek tasa ezberdinak onartu ahal izateko erabileren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako presio fiskal globalaren birbanaketa doituago egon zedin higiezinaren balio errealari; beraz, ez da beharrezkotzat jo zergaren subjektu pasiboaren inguruabar subjektiboak kontuan hartu behar izatea eta, ondorioz, kendu egin zen eztabaidagai den hobari hori.

Nolanahi ere, gaur egun beste konpentsazio-neurri ugari dago seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko:

Familia ugariak onura fiskalak dituzte izaera pertsonal eta objektiboa duten beste zerga batzuetan, esaterako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Gainera, beste onura, diru-laguntza eta laguntza publiko batzuk lortzeko modua ere badute, dela hezkuntzaren arloan (lehentasuna dute bekak lortzeko edo liburuak eta material didaktikoa erosteko laguntza zein diru-laguntzen deialdietan), dela etxebizitzaren arloan (sorospena etxebizitza babestuen edo erabiliak sustatu eta eskuratzeko, lehentasuna babes ofizialeko alokairurako kontratuetan ...).

Bada, azaldutako guztia dela bide, honako ohar hauek egin behar dira:

Bat. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak izaera erreala eta objektiboa duenez, Zerga Administrazioak, bere ahalen eremuan eta indarrean dagoen araudiarekin bat, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan dauden landa- eta hiri-ondasun higiezinaren balioa kargatu behar du, nahitaez kontuan hartu behar izan gabe zein diren Zergaren subjektu pasiboaren inguruabar subjektiboak.

Bi. Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-araubidea ezarri, mantendu eta arautzeko eskumen-esparruak berariaz esleitzen dio Bizkaiko Foru Aldundiari foru-arauden proiektuak onestea, ondoren Batzar Nagusiei bidaltzeko, haiek behin betiko onets ditzaten, herri-ordezkaritzaren eta -partaidetzaren Lurralde Historikoko organo gorena baitira; halaber ematen zaio lekua herritarren parte-hartzeari foru-arauden proiektua eztabaidatu eta onesteko prozesuan, hala alegazioen izapidearen bide nola haren osteko zuzenketak aurkezteko izapidearen bidez.

Hiru. Dagoeneko burututa daude bai alegazioen izapidea, bai Batzar Nagusiei proposatutako zuzenketak aurkeztu, aztertu eta eztabaidatzeko izapidea, eta Batzar Nagusiek ez dute egokitzat jo zerga horren arauan jasotzea familia ugaria diren subjektu pasiboentzat zergaren kuota osoaren hobaria lekarkeen onura fiskala.



Lau. Azkenik, foru-arauen proiektuak behin betiko onestea Bizkaiko Batzar Nagusien eskumena denez, Batzar Nagusiei dagokie bidalitako proiektuaren testuari proposatutako aldaketak behin betiko testuan jasoko diren erabakitzea, bai eta testuan jasoko diren aldaketen behin betiko eraketa eta onespena ere, politika fiskala dela-eta bidezkotzat jotzen dituen inguruabarrak aintzat hartuta”.

Gogoetak

1. Igorritako txostenaren edukiak aurretik landu beharreko kontu batzuetan jarri du arreta, hain zuzen ere, aurkeztutako Foru Arau Proiektua Bizkaiko Batzar Nagusiek aztertu, eztabaidatu eta onartzean eta zerga jakin batzuk araupetzeko eskumenak foru erakundeei berariaz ematean. Hala ere, erakunde honek uste du gai horrek ez ziela zalantzarik sorrarazi kexa sustatzen dutenei.

Ez dakigu aipatutako azalpena eman den fundazioaren uzia Batzar Nagusietan burututako eztabaidan aztertu zela eta atzera bota zela agerian uzteko.

Edonola ere, txostenaren alderdi batzuk –eskatutako informazioarekin zerikusia dutenak– aztertu aurretik, azaldu beharra dugu erakunde honen ustez ukazina dela zerga-arloan sailak duen eskumena, Espainiako Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren, Autonomia Estatutuaren, Lurralde Historikoen Legearen eta Ekonomia Itunaren ondorio dena. Izan ere, eskumen hori foru aldundietako gobernu kontseiluei ematen zaie, foru arauen proiektuak aurkez ditzaten, baita batzar nagusiei ere, proiektuok bideratu eta eztabaidatu ondoren, onar ditzaten.

Hain zuzen ere, arrazoi horregatik, informazio-eskaera Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari bidali diogu, bera baita zergei buruzko foru arauen proiektuetan jasotako aurreikuspenen arduradun administratiboa. Gobernu Kontseiluak proiektuak onartu ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusietara bidaltzen ditu, bertan aztertu, eztabaidatu eta onartzeko.

Dena den, kontuan izan behar da, era berean, zer ezartzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. c) artikuluan: erakunde honek, gomendioak eginez, legerian zer akats dauden adierazi ahal izango du, administratuen eskubideak bermatzeko orduan administrazioaren jarduerari eta zerbitzu publikoei behar bezalako objektibotasuna eta eragingarritasuna emateko. Gomendio horiek Legebiltzarrari, Jaurlaritzari, batzar nagusiei, foru aldundiei, udalei edo 9.1.d) artikuluan aipatutako erakunde edo organismoiei egin ahal izango dizkie.

Zehaztu beharra dago Foru Arauaren Proiektuan agertzen den zioen adierazpenak ez zituela justifikatzen 13 urtez indarrean egonda dirudien zergan finkaturik zegoen zerga-onura –familia ugariaren aldekoa– kentzeko erabakiaren arrazoiak.



Hori dela eta, kexari dagokion izapidea emateko, erakunde honek kexa jarri zuen fundazioaren desadostasuna helarazi zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari eta arrazoibidea eskatu zion, jakiteko, zergatik kendu zien familia ugarietako kideei ematen zitzaizen zerga-onura. Aldi berean, seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko neurri konpentsatzaileei buruzko informazioa eskatu zen, halakorik egonez gero.

2. Bi kontu zehatz horiei buruzko informazioa Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako txostenaren azken gogoetako lehenengoan dago jasota, baita txosteneko ondorioen aurretik egin diren balioespenetan ere.

Hain zuzen ere, txostenean jasota dagoenez, zergaren izaera egiazko eta objektiboa dela-eta, zerga-administrazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako hiri- eta landa-ondasun higiezinaren balioa kargatu behar izan zuen, zergaren subjektu pasiboaren egoera aintzat hartzea nahitaezkoa ez denez, egoera subjektibo hori kontuan hartu gabe.

Era berean, zerga zuzeneko, egiazkoa eta objektiboa izatearekin bat, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren Aurreproiektuan, ondasun higiezinak dituzten erabileren arabera, tasa desberdinak ezartzeko aukera eman zien udalei, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan dagoen presio fiskal orokorra modu egokiagoan –ondasun higiezinaren benetako balioa kontuan hartuta– banatzeko, zergaren subjektu pasiboaren egoera subjektiboak aintzat hartu beharrik gabe.

Jarraian, txostenak honela dio: *“Nolanahi ere, gaur egun beste konpentsazio-neurri ugari dago seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko:*

Familia ugariak onura fiskalak dituzte izaera pertsonal eta objektiboa duten beste zerga batzuetan, esaterako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Gainera, beste onura, diru-laguntza eta laguntza publiko batzuk lortzeko modua ere badute, dela hezkuntzaren arloan (lehenetasuna dute bekak lortzeko edo liburuak eta material didaktikoa erosteko laguntza zein diru-laguntzen deialdietan), dela etxebizitzaren arloan (sorospena etxebizitza babestuek edo erabiliak sustatu eta eskuratzeko, lehenetasuna babes ofizialeko alokairurako kontratuetan ...)”.

Aztertzen ari garen gaiaren inguruan hartu dugun jarreraren oinarriak ebazpen honetan azalduko ditugun arren, aipatu beharra dago erakunde honek ezin duela esan, ezta iritzi berekoa izan ere, seme-alabak beren kargura dituzten familiek une honetan eskura ditzaketan onura publikoak nahikoak direnik, familien berriazko premiak aintzat hartzen ez jarraitzea gomendatzeko.

Aitzitik, kontuan izan behar da tarte handia dagoela EAeko familien babeserako politiken eta gure inguruko Europako herrialdeetan sustatu diren politika aurreratuago eta babesleagoen artean. Horregatik guztiagatik, erakunde honen iritziak, familiei laguntzeko politika publiko horiek eta familiei laguntzeko neurriak bultzatu eta indartu behar dira (horien artean, zerga-arloko neurriak funtsezkoak dira). Ildo horretan, erakunde honek bere iritzia eman du, 2015ean Eusko Legebiltzarrari igorri duen "Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak" izenburuko txosten berezian. Txosten horren edukia jarraian aipatuko dugu berriro, xehetasun gehiagoz.

Era berean, esan beharra dugu zergaren izaera –objektibo eta egiazkoa– ez dela oztopo ondasun higiezinaren titularra den familiaren egoera subjektiboa kontuan hartzeko. Are gehiago, familiek urtero ordaindu behar izaten dituzten zerga handietako bat denez, sail hori bat etorri behar du gurekin zerga-kuotak eragin nabarmena duela familien ekonomietan, eta ondorioz, familiek erabili dezaketan errenta errealean.

3. Hobaria kentzearen ondorioak aztertu ahal izateko, ezer erabaki aurretik, erakunde honek jakin behar du zer xedatu zuen hobariari buruz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauak.

Izan ere, 19. artikulua hiru hirugarren zenbakiak arautzen zuen hobari fiskal hori, oso modu bigunean. Hain zuzen ere, ahalmena ematen zien lurralde historikoko toki-erakundeei ordenantza fiskalean zergaren kuota osoaren %90 era arteko hobaria ezartzeko, familia ugarietako kideak diren subjektu pasiboentzat.

Hortaz, ordenantzan, hobariak ukitzen dituen ondasun higiezinaren motak eta ezaugarriak, beraren iraupena, urteko zenbatekoa eta erazko eta funtsezko gainerako alderdiak ezarri behar ziren, eta beste zerga-onura batzuekin zein kasutan batera daitekeen argitu behar zen.

Gehienetan, ondasun higiezin bakar bati lotuta egon da hobaria: familiaren ohiko etxebizitzari. Izendatzaile komun hori abiapuntu harturik, udal ordenantzek jaso dituzten aukerak askotarikoak izan dira.

Izan ere, hainbat kasutan, Bizkaiko udalerriek ordenantza fiskalaren bidez hobariaren ehuneko ezberdinak ezarri dizkiote familia horiei, kideen kopuruaren arabera; bestetan, gainera, familia-unitateko errentaren eta ondarearen gehieneko zenbatekoak ezarri dituzte. Ildo horretan, ordenantza batzuetan, hobaria ez zen ematen, familia etxebizitza bat baino gehiagoren jabea zenean.

Era berean, toki-erakundeek nahi zuten moduan hobaria ezarri eta egituratu ahal izan zuten, eta gainera, garrantzitsua zen subjektu pasiboentzat. Horiek horrela, administrazioak ez zuen hobaria ofizioz aplikatzen, baizik eta, subjektu pasiboak eskatu behar izaten zuen, eta horretarako, udalerriak ezarritako baldintza guztiak betetzen zituela erakutsi behar zion administrazio ordainarazleari.



Hau da, 2016ra arte, foru arauak aurreikusitakoak ez zuen esan nahi familia batek hobaria eskuratuko zuenik. Hala ere, hobaria kentzeak berehalako ondorioak izango ditu, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, hobaria desagertu egingo baita. Hura ezartzeko araurik gabe, toki-erakundeek ezin izango dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ordenantza fiskaletan seme-alabak beren kargura dituzten familientzako hobaririk izan.

Kontuan izan behar da toki-erakundeek gozaten duten autonomia, tokiko zergak ordenantza fiskalen bidez araupetzeko, zerga arautzen duen Foru Arauak ezarritako esparrura mugatzen da.

Horren gainean, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak hauxe aitortzen du: *"Toki erakundeek, beren ahalmenak erabiliz eta foru arauen mugen baitan, zerga-onurak eman ahal izango dituzte beren tributu propioen alorrean, baldin eta beren aurrekontuen kontura ematen badituzte"*.

Ulertzen dugu eztabaidagarria izan daitekeela hobaria nola zehaztu eta nola aplikatu familia talde osoari, familia eredu jakin bat abiapuntu hartuta. Era berean, gure ustez, eztabaidatzekoa da aurreko araudiak ezarritako hobari fiskalak lurralde batetik bestera izan duen eragin desberdina, aplikatzeko modua Bizkaiko lurraldeko udalerrien borondatearen arabera baitzen. Dena den, erakunde honek babestu behar du Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauan hobaria aplikatzeko aukera eman izana, gutxienez, lehen urratsa izan dela, zergei loturiko neurrien bidez, familiak hobeto babesteko, eta, tokiko zergen mailan, egin behar duten ahalegin ekonomikoan laguntzeko.

4. Erakunde hau ados dago hiri- eta landa-ondasun higiezinak balioztatzeak objektiboa izan behar duela, eta ondasun higiezinaren balio katastrala arautzen duten arauekin bat etorri behar duela. Hala ere, horrek ez du alde batera utzi nahi eta ez du ezabatzen aukera Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari loturiko hobari subjektiboak sortzeko, gehien behar duten familiei laguntzeko tresna gisa. Izan ere, horrela beteko lirateke EAEko legeek familia-arloan ezarri dituzten irizpide orokorrak (13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa). Jarraian xehetasun handiagoz azalduko dugunez, lege horrek egoera bereziki ahulean dauden familiei arreta eta berariazko laguntza emateko esanbidezko printzipioa ezartzen du.

Erakunde honek behin baino gehiagotan esan du dagoeneko familia bat osatzen duten seme-alaben kopurua funtsezko faktorea dela familia horiek izango dituzten behar ekonomikoak zehazteko Hori kontuan izan beharko lukete EAEko administrazio publikoek politika publiko eta horiek garatzeko neurri zehatz guztietan. Hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarrari aurkeztu genion txosten berezian ("Familiei laguntzeko politikak Euskadin" izenburukoan) ere hitz egin dugu kontu horretaz. Neurri horien eragin ekonomikoak familietan irizpide horren arabera balioetsi beharko luke.



Esan bezala, 4/2016 Foru Arauak ezabatu egin du udalek ezartzeko hobaria. Hala ere, hobaria oraindik erabiltzen da Arabako Lurralde Historikoan¹ eta Gipuzkoan². Autonomiak eta foru erakundeek legez emandako arautzeko ahalmenaren babespean, errealitate bera zergaren aldetik desberdin tratatzen da, familiak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. Horregatik, aitortu behar da Bizkaiko familiek nekez ulertu eta onar dezaketela, Bizkaian bizi izateagatik ekonomia-egoera zailagoan daudela, Gipuzkoan eta Araban bizi diren familiek baino.

5. Familia indibiduoak hezteko eta guztiz garatzeko euskarri materiala eta afektiboa da, afektuari eta elkartasunari lotutako lehenengo harremanetarako lekua, baita zaintzaren bizipenentarako ere eta, besteak beste, prestatutako pertsonak gure sistema sozioekonomikoan txerta daitezen bermatzen du haien laneratzearen eta partaidetzaren bitartez interes orokorrari lagunduz.

Hurbilen daukagun zuzenbide positiboan arreta jarrita, familiaren babesa gizarte- eta ekonomia-politikaren printzipio gidari gisa bermatuta dago Konstituzioaren 39.1 artikuluan: "Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute."

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008. urtearen amaieran, Eusko Legebiltzarrak Familiei laguntzeko abenduaren 12ko [13/2008 Legea onartu zuen](#), familia-politika osoa lortzeko esparrua eta oinarriak ezartze aldera. Familien eta familiako kideen ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetzea da politikaren helburua. Lege horrek orientabide integrala aurkitu nahi du, bai legearen hartzaileak diren familia mota desberdinei, bai jasotako neurriei dagokienez.

Alde batetik, legeak familia moten bilakaeraren berri eman du eta lehen ahalegin bat egin du familia-eredu berriei legitimitatea emateko eta eredu tradizionalagoen tratu bera jasoko dutela bermatzeko. Era berean, eta gizarte-zerbitzuen legearekin bat, arreta berezia jartzen die egoera ahulenean dauden familiei. Saikapenak barnean hartzen ditu guraso bakarreko familiak, genero-indarkeriaren biktimen familiak eta kide ugariko familiak. Ondorioz, familia horiek guztiak araututa, definituta eta lege-esparruan jasota geratzen dira.

Beste aldetik, gurasoek seme-alaba adingabeen zaintza eta mantenua bermatzeko daukaten eginkizuna onartu du eta adierazi du seme-alabak dituen pertsona orok unitate ekonomiko independente gisa horiek artatzeko baliabide ekonomiko eta zerbitzu nahikoak eduki behar dituela, hirugarrenen laguntzara jo behar izan gabe.

¹ Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15.7 art.

² Gipuzkoako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 15.1.b) art.

13/2008 Legeak administrazio publikoei esleitzen die oztopoak kentzeko eta egoera bereziki ahulean dauden familiei laguntzeko neurriak edo jarduera positiboak abian jartzeko betebeharra. Horri dagokionez, Berdintasuna eta ekitatea izenburuko 3.2. c) artikulua honela dio: *“Euskal herri-administrazioek familia-mota guztiak errespetatu daitezkeen sustatu behar dute, direnak direla familien osasuna eta tamaina edo familia-unitate bakoitzaren oinarrian dauden bikote-harremanen eta seme-alabatasunaren izaera; eta, ekitate-printzipioa dela bide, babes handiagoa eman behar diete egoera bereziki ahulean dauden familiei.”*

Gainera, lege bereko 24. artikulua azpimarratzen du zerga-neurriak homogeneizatu behar direla familiei laguntzeko. Zehazki, artikulua hauxe dio:

24. artikulua.– Zerga-neurriak homogeneizatzea.

1.– Eusko Jaurlaritzak sustatze-lana egingo du lurralde historikoetako organo eskudunek lege honetan aipatzen diren familia-moten aldeko zerga-neurriak har ditzaten zergei buruzko beren foru-araudian, batez ere adingabeko seme-alabak eta beren kasa moldatzen ez diren kideak dituzten familien alde.

Ahalegina egingo da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zehazturik datozen zerga-neurrietan familia ugarien egoera berriaz jasotzeko, beste familiek baino gastu handiagoa dutenez gero, eta egoera bereziki ahulean dauden familia-moten egoera ere berriaz jasotzeko, hala nola guraso bakarrek, etxean indarkeria jasan dutenena edo terrorismo-ekintzak jasan dituztenena.

Era berean, ahalegina egingo da sozietate-zergan zehazturik datozen zerga-neurrietan onurak edo hobariak jaso daitezkeen, familien arretarako eta lana eta familia uztartzen laguntzeko zerbitzuetan enpresek benetan egindako gastuak direla-eta, hala nola enpresako jantoki eta haurtzaindegietan edo beren enplegatuen familientzako oporraldietarako eta astialdirako zerbitzuetan egindakoak.

Eusko Jaurlaritzak, Zergak Koordinatzeko Organoaren bitartez, lurralde historikoek familiei laguntzeko zerga-neurri homogeneoak har ditzaten sustatuko du, Autonomia Erkidegoko herritarren arteko berdintasuna bermatzea helburu dutela.

Zergetan baliabide ekonomiko gutxieneko familien alde egitearren, batez ere kuota-kenkariak aplikatu daitezke, zerga-oinarria murriztu beharrean.

2.– Eusko Jaurlaritzak, udal-eskumen diren zerga, tasa eta prezio publikoei dagokienez, horietan batez ere familia ugarien eta egoera bereziki ahulean dauden familien alde egin dadin sustatuko du Autonomia Erkidegoko udaletan”.

Familiei ematen zaien laguntza hobetzearen aldeko apustu irmo horrek 'transmisio-uhala' izan du, familiei laguntzeko erakundearen arteko planak onartu eta ezartzean. Ildo horretan, azpimarratu behar dugu indarrean dagoen planean azaltzen den ildo estrategikoetako bat hauxe dela: " familiei laguntzeko eta



bizitza-proiektuak autonomiaz garatzeko aukera zerbitzu, baliabide eta politikak bultzatzea”.

Helburu hori betetzeko, baliabide ekonomikoak jarri behar dira, kostuak konpentsatzeko. Horrek neurri ekonomikoak hartzea eskatzen du (zuzeneko diru-laguntzen edo kenkari fiskalen bidez), familiek euren eginkizunak betetzean ordaindu behar izaten dituzten gastuak konpentsatzen saiatzeko. Ezin da ukatu zerga-onurak familiari aitortzeak berehala eta modu zuzenean eragiten duela bere ekonomian.

Horri dagokionez, komenigarritzat jotzen dugu haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen aurreikuspenak kontura ekartzea, aztertu beharreko osagai gisa "araudiaren inpaktua familiarengan" jasotzen baitu. Lege horrek, bere azken xedapenetako bosgarrenean, Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea aldatzen du. Zehazki, hamargarren xedapen gehigarria gehitzen dio, honela dioena: *“Lege-aurreproiektuekin batera eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren arau-eraginaren azterketari buruzko memoriak araudiak familiengan duen eragina ere jasoko dute.”*³

6. Toki-erakundeek zenbait bide dituzte egoera bereziki ahulean dauden familiei lagun diezazkiekeen neurriak abian jartzeko. Horietako bat, eraginkorra dena, udal tasak, prezio publikoak eta udal zergak –adibidez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga– ordaintzean hobariak aplikatzea da. Hala ere, horretarako, toki-erakundeek udal zergak eta tasa publikoak arautuko dituen Foru Arauaren babesa behar dute.

Parte hartzen duten erakunde guztien ahalegina –baterakoa eta norabide berekoa– ezinbestekoa da euskal gizarteak gure familien ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetzeko bidean aurrera egin dezan. Hala ere, 4/2016 Foru Arauak jasotzen duen irtenbidea urruntzen ari da 13/2008 Legeak ezarritako gidalerroetatik, familiak ezberdin tratatzeko modua –hasiera batean, zergak ordaintzeko ahalmenarekin zerikusirik ez duena– ezartzen baitu; gainera, desberdintasuna sortzen du Euskal Autonomia Erkidegoko familien artean.

7. Aipatu dugun bezala, erakunde honek *Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak* izenburua duen txosten berezia argitaratu zuen 2014an. Dokumentuan alderdi horietako ugari landu ditugu eta agerian utzi dugu administrazio publikoek familiei laguntzeko eta babesteko tresnak abian jartzeko eta sakonki aztertzeko beharra.

Txostenean azaldu dugunez, datozen urteotan, gure Autonomia Erkidegoak erronka handiari aurre egin behar izango dio: inbertsio publikoa handitu, seme-

³ Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 22. *quinquies* artikulua arau-proiektu guztiek haur eta nerabeengan izan dezaketen eragina aztertzeko betebeharra ezartzen du.

alabak dituzten familiek ordaindu beharreko kostu handiak konpentsatzeko. Horrela, zehazki ondoko hau adierazten zen: *“Euskadirentzat funtsezko erronka da seme-alabekiko familiei babes ekonomikoa emateko egin beharreko inbertsio publikoa. Gai honetan europar testuinguruarekin pixkanaka parekatzeko, beharrezkoa da familia hauen gastuen konpentsazio publikoaren neurriak oso haztea.*

Adierazi den bezala, Euskadik orain arte izan duen gastuen konpentsazio-sistema ez-unibertsala eta batez ere dedukzionista izan da; europar testuinguruan izaera unibertsalagoa eta inbertsionistagoa duten arren.

Gure inguruko herrialdeek familien ahaleginari lagundu egiten diote, seme-alabak izatea, haztea eta heztea esfortzu handia baita eta herrialde horien pare jarri behar izanez gero pixkanaka, ahalegin ekonomiko publiko handiagoa egin beharra dago, seme-alabekiko familientzat zuzeneko laguntzak unibertsalizatzea lor dadin. Era berean, beharrezkoa da zerga-ereduaren egiazko progresibitateari buruzko hausnarketa prozesua abian jartzea, irtenbide berritzaileagoak eta inklusiboak aurkituz, beste europar errealitate batzuetan bezala”.

8. Gauzak horrela, helburu horiek nola eskuratu behar diren erabakitzea gure esku ez badago ere, gogorarazi behar diegu euskal administrazio publiko guztiei herritarren eskabideei behar bezala erantzun behar dietela. Izan ere betebeharrak horrek legedian du oinarri eta legeak babestuta dago. Hori dela eta, alde batetik, abian jarri nahi diren neurrien inpaktu ekonomikoa familia desberdinetan aztertu behar da, eta bestalde, familiei nahikoa laguntza eman, bereziki, egoera ahulenean dauden horiei. Hori guztia lortzeko, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da era askotako neurri publikoetan –baita zerga arlokoetan ere– neurrien eraginpean dauden familiak seme-alabarik ote duten kontuan izateko ohitura hartzea.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Iradokizuna

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak hausnarketa-prozesu bat hasi beharko luke, lurralde historiko horretan, seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko tresna eta neurri ekonomikoak bultzatzeko bidean aurrera egitearren, bizitza-proiektuak autonomiaz garatzeko aukera izan dezaten. Familiek beren gain hartzen duten ahalegin ekonomiko handia kontuan hartu behar da, eta horretarako, ezinbestekoa da kostuak konpentsatzeko neurriak ezartzea.



2. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak, erabakiak hartu aurretik, aztertu beharko luke zer-nolako eragina izan dezaketen abian jarri nahi dituen zerga-neurriek (zerga-erreformak barne, adibidez, aztertzen ari garena, familia horiei hobari fiskalak kentzen dizkiena) seme-alabak dituzten familiengan.
3. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak aurrerapausoak egin beharko lituzke, oro har, familientzako zerga-onurak homogeneousizatzeko, seme-alabak dituzten familiak Euskal Autonomia Erkidego osoan, beren bizitokia edozein dela ere, sistema berdintsu batez babesturik egon daitezen.

